

Zer da LURGARBI?

Testuliburuak prezio erdian erosi edota saltzeko aukera ematen duen egitasmoa, Institutuko **Batxilergo ikasleei** zuzenduta.

Baldintzak:

Testuliburuak **egoera onean** egon behar du.

Prezioak errespetatu behar dira.

Liburuen zerrenda gutun honekin batera bidaltzen dizuegu.

JARRAIBIDEAK

SALTZAILEENTZAT:

Askatasunaren webgunean, Lurgarbi atalean, bete ezazu dagokizun galdetegia, mailaren arabera. Bertan zure datuak, ibilbidea, eta saltzen dituzun testuliburuak adierazi behar dituzu. Zure datuak tabloian bilduko dira.

Eroslea zurekin jarriko da kontaktuan, telefonoz edo postaz. Ados jarri zure artean, liburuen salmenta egiteko.

Liburuak saltzean, sartu berriz galdetegian eta kendu banan-banan (denak saldu badituzu, salduta markatu, taulan horrela agertu dadin).

EROSLEENTZAT:

Askatasunaren webgunean, Lurgarbi atalean, sartu zaitetz dagokizun tabloian, mailaren arabera. Bertan agertuko dira saltzaileen datuak (ibilbidea, saltzen dituen liburuak, telefonoa eta helbide elektronikoa)

Jarri kontaktuan interesatzen zaizunarekin, eta ados jarri berarekin erosketa egiteko.

OHARRA: Batxilergoko 2. mailako ikasleek berandu bukatuko dute, BEUS ekainaren bukaeran izanen delako. Hala ere, galdetegia bete eta salmenta hitzartu dezakezue aldez aurretik.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

